

DONOSTIA / Dendetatik Gipuzkoa plazara irtengo dira liburuak

Liburuaren Eguna Eleberriak, komikiak, ipuinak... Milaka istorio eta abentura izango dira bihar irakurzaileen eskura.

Nerea Lizarralde

1616ko apirilaren 23an Cervantes, Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazle handiak hil ziren. Efemeride hau aukeratu zuen UNESCOk gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko eta horregatik ospatu ohi da Liburuaren Nazioarteko Eguna. Donostian, ohi bezala, Euskara Patronatuak, Donostia Kulturak eta Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak liburu azoka prestatuko dute bihar Gipuzkoa plazan.

Zazpi argitaletxek, bost liburudendek eta bi banatzailek parte hartuko dute azokan. Guztira 14 postu. Irakurzaileek, ohi bezala, %10eko deskontua izango dute liburuetan eta, gainera, bost euroko erosketagatik txartela eskuratuko dute 300 libururen zozketan parte hartzeko.

Donostia Kulturaren karpan, argitalpen eta liburuxkez gain, urtero bezala Juan Luis Landak Liburuaren Nazioarteko Egunerako egindako orri markagailuak banatuko dira. Udal Liburutegien Sareari buruzko informazioa biltzen duen liburuxka bat ere eskuratu ahal izango da.

9:30ean irekiko du azoka Andoni Arantzegik, Gipuzkoako Liburudenden lehendakariak, Udal Txistularien Bandarekin. 10:30 eta 11:30 bitartean, Estibalitz Etxebeste ipuin kontalariaren saioa izango da haurrentzat.

12:30etik aurrera hainbat idazlek, aktorek, irakaslek eta irakurlek gustuko dituzten liburuen zatitxoak irakurriko dituzte, hala nola, Donostiako Joan Mari Irigoien, Xabier Etxaniz Rojo edo Iban Zaldia idazleak. Musikak ere izango du tartetxo bat azokan, 18:00etan, Trio Van Der Chirris taldeak kontzertua egingo baitu. Brailen idatzitako liburuen irakurketa ere egingo dute ONCEko kideek, aurten Luis Braileren jaiotzaren bigarren mendeurrena baita. 19:00etatik aurrera helduentzako ipuin kontaketa egingo du Kontukantoi taldeak.

Azokako euskarazko eta gaztelaniazko liburu salduenen egileek Zilarrezko Euskadi Saria eskuratuko dute. Uztaila aldean banatu ohi dira sari hauek.